

**BIDAIA OFIZIALA PARISERA****EUSKADI EUROPAREN ETORKIZUNARI BURUZKO
KONFERENTZIAREN AURREAN**

2022-10-26 Paris 26-10-2022

Lehendakariaren hitzaldia

Eskerrik asko, mila esker Enrico Letta, Notre Europe-ko presidentea, eta eskerrik asko topaketa honetan zuzenean edo online parte hartzen duzuen guztioi.

Eskerrik asko zure abegikortasunagatik, interesagatik eta parte hartzeagatik.

Pozgarria da zuekin, Europako pentsamendu-zentro ospetsuenetako bateko kideekin, bilera hau egitea. Izan ere, Jacques Delors fundatzailearen ondarea gordetzen du, Europako herrien integrazio-prozesuari ekarpen handia egin zion gizonarena.

Ohore handia da zuei iragartzea Eusko Jaurlaritzak aurki ordezkari bat irekiko duela hemen, Parisen. Gure asmoa da joan den mendeko 30eko hamarkadaren amaieran Jose Antonio Agirre lehendakariak eta Francisco Javier de Landaburu lehendakariordeak, besteak beste, hasitako jarduera bultzatzea.

Biek parte hartu zuten Europako demokrazia kristauaren eta Nazioarteko Talde Berrien sorreran. Hagako Kongresuan ere parte hartu zuten. Hain zuzen, geroago Europako Erkidegoak izan zirenaren lehen pausotzat hartzen da kongresu hori.

Gaur, haien legatuari heltzen diogu berriro, eta Euskadiko Ordezkaritza zuen etxetzat har dezazuen eskatzen dizuet.

Eskertzen dut zuen Erakundea prest egotea Eusko Jaurlaritzarekin hainbat jardueratan lankidetzan aritzeko.

Hauxe da gaur elkartzen gaituen gaia: Europaren etorkizuna:

-Aurrean ditugun erronkak.

-Europar gisa eman beharko genituzkeen erantzunak.

-Eta zein izan daitekeen Eusko Jaurlaritzaren ekarpena, Europaren integrazioarekin konprometitutako erakundea den heinean.

“Euskadi Europako etorkizunari buruzko konferentziaren aurrean” dokumentua duzue.

Gaur, hori izan da von der Leyen lehendakariak Europaren etorkizunaren inguruan abian jarritako konferentziari egin diogun ekarpena.

Ondo badakizue ekarpen hori zein testuingurutan izan den.

2019ko abenduan, 2008an piztutako nazioarteko krisi finantzarioaren ondorioetatik suspertzea lortu genuen.

Hilabete batzuk geroago, 2020ko martxoan, Osasunaren Mundu Erakundeak pandemia dekretatu zuen.

Urte eta erdi alarma-egoeretan eta prebentzio-neurri etengabeekin eman ondoren, Euskadin atzean utzi genuen osasun-larrialdiko egoera. Handik bi astea besterik ez, Errusiak aldebakarreko eraso hasi zuen Ukrainaren aurka.

Ukrainaren inbasioa mehatxu handia da Europako demokrazia liberalentzat.

Beste garai batzuetan, gizarteek gerra-egoerak, aldaketa teknologikoak edo pandemiak jasan dituzte. Baina hiru prozesuek ez zuten inoiz denboran bat egin.

Ez herrialde batek, Euskadi kasu, ez estatu batek, ez dute beren kabuz egoera horren kausak iraultzeko ahalmenik.

Baieztaatu egiten da estatuak txikiegiak direla irismen handiko arazoetarako, eta handiegiak arazo tokikoagoak eta etxeagoak konpontzeko.

Gakoa da tokian-tokian jardutea, eragiten diguten joera global handiak kontuan hartuta.

Agertoki globalean hiru joera nabarmentzen ditut:

Lehenik eta behin, joera soziodemografikoak:

- Munduko populazioak gora egiten jarraitzen du.
- Aurrekaririk gabeko zahartze-egoeran gaude.
- 2030ean, munduko biztanleen bi heren hiriguneetan biziko dira.
- Desberdintasun-faktoreak hazi egin dira eremu geografiko guztietan.

Bigarrenik, joera ekologikoak eta energetikoak:

- Gizateriak berotze globala 2 gradu zentigraduren azpitik mugatzeko erronka du, eta ez gara erronka horri erantzuten ari.
- Energia gehiago kontsumitzen dugu eta karbono-emisioak handiak dira oraindik.
- Energia berriztagarriak hazten ari dira, baina erregai fosilak nagusi dira oraindik.
- Klima-aldaketak arriskuan jartzen du munduko ur- eta elikadura-segurtasuna, eta horrek eragina izango du garapen jasagarrian.

Hirugarrenik, joera ekonomikoak eta teknologikoak:

- Munduko hazkunde ekonomikoa ziurgabetasun handi baten mende dago.
- Ekonomia globala multipolarra da: Txinak funtsezko zeregina izango du, eta, ziurrenik, baita Indiak ere epe luzeagoan.
- Munduko merkataritzak hazten jarraituko du eta datu-fluxuak funtsezkoak izango dira.
- Herrialde guztiak saiatuko dira konektibitatearen buru izaten, nahiz eta eten digitalek jarraitzen duten.

Testuinguru horretan, multilateralismoa eta ituna, Nazio Batuetan eta Europar Batasunean, bide erabakigarriak dira egungo egoerari aurre egiteko.

Herritarrek aurrerabidean duten itxaropena berreskuratzea eta erakundeekiko konfiantza indartzea eztabaidaren ardatzera itzultzen dira, kontratu soziala berritzearekin batera.

Funtsezkoa da gure erakundeak eta gizartearekiko elkarreragina indartzea, eta gure demokrazia-eredua eta komunitatean bizitzeko eredua babestea.

Uste osoa dut eta bat nator ezinbestekoa dela testuingurua eta ingurune politiko, ekonomiko eta soziala behar bezala irakurtzea Europar Batasunaren etorkizunari berme osoz aurre egiteko.

Europa indartsu bat defendatzen dut, integratuagoa, barneko zein kanpoko politika propioak izango dituen.

Europa sendotu egin da krisi handiei aurre egin behar izan dienean. Estatuaren interesen gaintik, bultzada politiko eta ekonomiko berri bat emateko unea da, Europa eragile garrantzitsu bihurtzeko bizitzen ari garen “aro-aldaketa” honetan.

Europaren birfundazio horrek eskatzen du inguruko herrialdeekin harreman-eskema berri bat zehaztea, Europako Komunitate Politiko bat sortzeko, baita Batasunaren gobernantza berrikustea ere.

Ikuspegi politiko horretatik, Europa ulertzen dut bera osatzen duten herrien batasuntzat, subsidiarotasun-printzipioan oinarrituta eta maila anitzeko gobernantzarekin.

Bere kontsentsuak behetik gora eraikiko dituen Europa bat, soziologia europarra osatzen dugun herri, nazio, gizarte eta gobernuen espazio bat emango diena.

Itunak erreformatzeko Europako Konbentziorako balizko deialdiak aukera bikaina eskaintzen digu.

Europako Konbentzio horren esparruan ustez irekiko den eztabaidan kontuan hartu beharreko zutabeak planteatzen ditut.

EUROPA SOZIALA

2017an Göteborgeko Goi Bileran onartutako Eskubide Sozialen Europako Zutabeak Europa sozial baterako jardun-esparrua diseinatzen du. Berdintasunaren Europar Batasun bat, lanpostu gehiago eta hobeak izango dituen, babesarekin eta gizarteratzearekin konprometitua.

Gutziz bat gatoz planteamendu horrekin.

Batasuna erreformak prestatzen ari da esparru arauemailea egokitzeko eta EB bidezkoago eta inklusiboago baterantz aurrera egiteko:

- 2021eko urtarrilean, Europako gizartea zahartzearen erronkei eta aukerei buruzko eztabaida hasteko Liburu Berdea.
- 2021eko martxoan, Eskubide Sozialen Europako Zutabea ezartzeko Ekintza Plana.
- 2021aren amaiera aldean, gizarte-ekonomiarako Ekintza Plana.
- EBk Gazteen Europako Urtea izendatu zuen 2022a.

Azken hilabeteetan, egoera sozioekonomikoan eragina izaten ari da Errusiak Ukraina inbaditu ondoren gerra piztu izana. Inflazioaren gorakadak —energia-fakturaren eta erosketasaskiaren prezioak izandako igoera handiak bultzatuta— familia-ekonomiak

ahultzen ditu, batez ere pertsona kalteberenen artean. Produkzio-ehuna ere ahuldu egiten da, eta horrek enpleguan eragina du.

Testuinguru horretan, Europa sozialago bat eraikitzeko helburuarekin, neurri hauen alde egiten dugu:

- Gizarte Eskubideen Europako Zutabearen 20 printzipioak ezartzeko Ekintza Plana, berori aplikatzean estatu azpiko gobernuak kontuan hartuta.
- Europako herritar guztiei bizitza duina bermatuko dieten lan-baldintzak, gutxieneko soldata eta oinarrizko gizarte-estandarrak erregulatzea.
- Enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa eta lan-ingurune osasungarriak bermatzea; eta enplegu presentzian irabazitako eskubideak babestea ingurune digitalean.
- Pertsona guztiek funtsezko energia-zerbitzuak eskura izango dituztela bermatzea.
- Jaiotza-tasaren aldeko politikak abian jartzea.
- Europako Batzordearen 2025eko Genero Berdintasunerako Estrategia.
- Adineko pertsonak ahaldu daitezkeen sustatzea.
- Eskualdeko eta mugaz gaindiko unibertsitate-ekosistemak indartzea.
- Eta EBko eleaniztasuna eta hizkuntza- eta kultura-aniztasuna sustatzea.

OSASUNAREN EUOPAR BATASUNERANTZ

Covid-19aren pandemiak Europako agenda berri bat piztu du. Agenda horrek lankidetz-estrategia berriak eraikitzen bultzatzen du osasunaren arloan.

Europako Batzordeak 2020ko azaroan aurkeztu zuen “Osasunaren Europar Batasuna” indartutako osasun-programa berria. Programak esparru juridiko sendoagoa eta osatuagoa aurreikusten du. Europa osasun-mehatxu globalen aurrean prest egoteko eta horiei erantzuteko bidea emango duen esparru juridikoa da, hain zuzen.

Ekimen horren alde egiten dugu, eta, aldi berean, exijitzen dugu eskumenen balizko lagapenean estatu kide bakoitzaren erakunde-arkitektura errespetatu daitezela, eta, bereziki, osasunaren arloan legegintza-eskumenak dituzten eskualdeen rol nagusia.

EUROPA LEHIAKORRA

Merkatu bakarraren sorrerak berekin ekarri du EB munduko erraldoi ekonomiko bat izatea, baina horrek ez du lehiakortasuna bermatzen.

Horrekin batera, anbizio handiko industria-politika bat izan behar du eta lehiakortasunerako palanka diren beste politika batzuekin integratuta egon behar du. Horien artean daude ikerketa eta berrikuntza, merkataritza, hezkuntza eta prestakuntza.

Europaren lehiakortasun horren alde, honako lehentasun hauek planteatzen ditugu:

- Industria-sektore lehiakorra, erresilientea eta mundura irekia.
- Europako ekonomiaren ardatza diren enpresa txiki eta ertainei laguntzeko programak.

-Unibertsitatearen eta lanbide-heziketaren eredia eraldatzea, prestakuntza duala eta hezkuntza- eta enpresa-munduko aliantzak bultzatuta.

-I+G+b-aren aldeko apustu irmoa egitea.

-EBren autonomia estrategikoa bermatzea funtsezko sektoreetan, 0 km-ko produktuak bultzatzea eta balio-kate globalen erresilientzia handitzea.

-Subiranotasunaren alde egitea teknologia kritikoetan, hala nola mikroprozesadoreetan, 5G sareetan edo superordenagailuetan, eta Europako benetako “datuaren ekonomia” bat sustatzea.

-Eskualdeetako ekosistemen artean zubiak eraikitzeke lankidetzeta eta ahalmena indartzea.

-Zibersegurtasunaren arloko ahalmenak indartzea.

-Ekonomia zirkularraren eredu berri bat sortzea.

-Eta estrategia makroeskualedekoak sustatzea; bereziki, Makroeskualede Estrategia Atlantikoa onar dadin sustatzea.

EUROPA EKONOMIKO-MONETARIOA

EBko gobernantza ekonomikoari buruzko eztabaida publikoa mahai gainean dago, Europako ekonomiak zailtasun handiak baititu.

Europako Batzordeak *Next Generation EU* programa abiarazi zuen 2020an.

800.000 milioi eurotik gorako aldi baterako suspertze-tresna bat da, Europa ekologikoagoa, digitalagoa eta egungo eta etorkizuneko erronketara hobeto egokitua lortzen lagunduko duena. Lehen aldiz, Europako zor mankomunatura jotzen da. Zalantzarik gabe, mugarri bat da integrazioaren bide luzean.

Eusko Jaurlaritzak Euskadi Next diseinatu du hiru lehentasun estrategikorekin: digitalizazioa eta berrikuntza; adineko pertsonen osasuna eta zaintza; eta trantsizio energetiko eta ekologikoa.

Europarako lehentasun hauek planteatzen ditugu:

-Ekonomiaren digitalizazioaren ondoriozko erronka fiskalei heltzea.

-Paradisu fiskalen eta iruzur fiskalaren aurka borrokatzea.

-Next Generation EUk benetako eraldaketa sozioekonomikoaren palanka gisa jardun behar du. Eskualdeko eta tokiko agintariek Suspertze eta Erresilientzia Plan Nazionalen definizioan duten parte-hartze eskasak arriskuan jartzen du plan horiek inplementatzearen arrakasta.

Ekonomia eta Diru Batasunaren dimentsio ekonomiko eta sozialari dagokionez, honako hau planteatzen dugu:

-Eurotaldearen erabakiei legitimazio handiagoa emango dieten gobernantza-mekanismo demokratikoagoak eta gardenagoak.

-Lehia fiskala saihestuko duen Europako zerga-sistema pixkanaka konfiguratzeta.

-Eta politika fiskalean eskumen eskusiboak ditugunez, euskal erakundeek EBko erabaki-fofoetan, bereziki, Ekonomia eta Finantza Kontseiluan (ECOFIN) parte hartzeko mekanismo bat antolatzea.

EUROPA GEOPOLITIKOA

Gaur egun, konkistatu beharreko ondasuna da bakea, eta egunero defendatu beharreko lorpenak dira balio demokratikoak eta arauetan oinarritutako nazioarteko harremanen ereduak.

Errusiaren erasoak legezketasunaren eta giza eskubideen arloetan dakarren urraketa nabarmenaren aurrean, Europar Batasunak emandako aurrekaririk gabeko erantzun baterakoak eta irmoak Europa geopolitikoaren lehen urratsak ezartzen ditu, bere gain hartzen baitu lidergoa Europako balioen eta bakearen defentsan.

EBk bere autonomia estrategikoa indartu behar du segurtasun- eta defentsa-arloan. Prebentzioa da segurtasun-estrategiarik onena.

Nolanahi ere, EBk heldu beharreko erronka garrantzitsuak ditu nazioartean. Horietako bat Migrazioari eta Asiloari buruzko Itun berri bat argitaratu ematean datza.

Oinarritzak da EB sendotzea nazioarteko harremanen oinarri gisa multilateralismoa sustatuko duen botere global gisa, 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko 17 Helburuak ezartzea bultzatzeko. Ildo horretatik, Euskadi Nazio Batuetako 2030 Toki Idazkaritzaren egoitza izatea aukera ona da gure Herriarentzat.

EUROPA JASANGARRIA

Jasangarritasunaren kontzeptuak hainbat dimentsio biltzen ditu, ingurumen-dimentsiotik hasi eta dimentsio ekonomiko eta sozialera iritsi arte.

Europako Itun Berdeak bidea ezartzen du EB klima aldetik lehen kontinente neutroa bihurtzeko 2050ean. Helburu horrekin, nabarmendu egiten du energia berriztagarrietan eta ekonomia zirkularraren sustapenean oinarritutako sektore elektrikoa garatzeko beharra, besteak beste. Eusko Jaurlaritzak Europaren proposamenaren ildotik bideratu du jasangarritasunaren arloko bere jarduna. Horrela, *Basque Green Deal* ibilbide-orri propioa da, etorkizun jasangarriagoa lortzera zuzendutakoa. Horrek berekin dakar zientzia, teknologia, ekonomia zirkularra, industria, trantsizio energetikoa edo elikaduraren katea bera helburu berarekin bat eginaraztea: garapen bidezkoa eta jasangarria.

Uste dugu EBk gidatu behar duela klima-aldaketaren aurkako borroka mundu-mailan. Hortaz, proposatzen dugu Lurralde Itun Berdeak abiaraztea; jasangarritasunaren eta hezkuntzaren arteko lotura sendotzea; garapen, negozio eta kontsumoko eredu zirkularragoak, inklusiboagoak eta jasangarriagoak sustatzea; eta energia berriztagarriak garatu eta hedatu daitezzen bultzatzea: hidrogenoaren ekosistemak, energia eolikoa edo itsas energia ezartzea.

Era berean, uste dugu funtsezkoa dela energia-interkonexioak bultzatzea eta trenbide-garraioaren Europa barneko sarearen hedapena burutzea, Korridore Atlantikoaren trenbide-konexioa osatzeko.

EUROPA POLITIKOA

Gobernantza arin eta errepresentatibo berri bat ezartzea funtsezkoa da planteatutako proposamenetako asko gauzatzeko. Erronkek erantzun-mekanismo eraginkorrak eskatzen dituzte, eta horrek Batasunaren ekintzen legitimitate handiagoa ekarriko du.

Beharrezkoa da herritarrek Batasunaren bizitzan parte-hartze handiagoa izan dezaten bultzatzea, baita Europako Parlamentuak erabakitze-prozesuan duen zeregina indartzea ere.

Ukaezina da Europar Batasunak eboluzionatu egin duela “eskualde-itsutasuna” deitutakotik eskualdeen aintzatespen gero eta handiagorantz (mugatua bada ere). Hala eta guztiz, gainditu gabeko ikasgaia da oraindik Europako maila anitzeko gobernantza eraginkorra lortzea.

Premiazkoa da eztabaida bat irekitzea eta proposamen zehatzak egitea, Batasunaren etorkizuneko gobernantzan Eskualdeak egoki txertatzeko, batez ere legegintzan eskumenak dituzten Eskualde Konstituzionalak eta estaturik gabeko errealitate nazionalak ordezkatzen dituzten eskualdeak.

Eskualde Konstituzionalak EBren eredu instituzionalean sartzeak berekin ekarriko luke Batasunaren politika komunak hobetzea eta haren legitimitate demokratikoa indartzea.

Alain Lamassoure-k Europaren etorkizunerako azken Konbentzioan (2001-2003) defendatutako tesia oinarri hartuta, proposatzen dugu estaturik gabeko herri eta nazioen Batasuneko Eskualde Elkartuaren estatusa aitortzea, horiek, historikoki, autogobernu-borondatea adierazten ari baitira eta Europaren integrazioarekin konprometituta baitaude. Tesi hori defendatzen dugu legegintzako eskumenak dituzten eskualdeetako 16 gobernuok, RLEG ekimenaren inguruan bilduta.

Euskadi Europar Batasunaren hastapenetan egon da, eta pertsona, gizarte-kohesioa, jasangarritasuna eta integrazioa ardatz dituen etorkizuneko proiektu batean parte hartzen ari da orain. Europar Batasunak kultura-aniztasuna eta inklusioa, bizi-kalitatea eta ongizatea sustatzen ditu, giza eskubide unibertsalak eta bizikidetzak baketsua defendatzen ditu, eta giza garapen jasangarriaren eredia bultzatzen du.

Alde horretatik, Jean Monnet-en ideia bat neureganatuz amaituko dut nire mintzaldia. Hark zioen: ez gara estatuen arteko koalizioak osatzen ari, herrien arteko batasun bat baizik.

Lanean jarraituko dugu Europa osatzen dugun herrion arteko Batasunean finkatutako Europa baten alde.

Mila esker zuen arretagatik, eskerrik asko!